**NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA**

IRAGARKIA, behean aipatzen diren Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpenak jakinarazteko. 13894

IRAGARKIA, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren 2006ko otsailaren 17ko Ebazpena jakinaraztekoa. Ebazpen horren bidez ordainketa bakarreko behin-behineko eskubideak esleitu zaizkie behean adieraziko pertsonei. 13895

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN**

ANUNCIO por el que se notifican las resoluciones abajo indicadas, del Director de Agricultura y Ganadería. 13894

ANUNCIO por el que se notifica la Resolución de 17 de febrero de 2006, del Director de Agricultura y Ganadería, por la que se asignan derechos provisionales de pago único a las personas abajo indicadas. 13895

# Xedapen Orokorrak

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 3383

129/2006 DEKRETUA, ekainaren 20koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia sortu eta haren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen duena.

4/1986 Legeak (apirilaren 23koa da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa) bere 26. artikuluan xedatzen duenez, beren baitan estatistikarako organo berezi bat eratuta daukaten Jaurlaritzaren Sailek aurrera eramango dute, betiere Lege horretan aurreikusitakoari jarraiki, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko jarduna, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolamenduaren zati bihurtuz. Legezko testu beraren 27. artikuluak ere estatistika-organo horiek beren araudiaren menpe daudela adierazten du.

180/1993 Dekretuak (ekainaren 22koa da eta Jaurlaritzaren Sailen Estatistikarako Organo Bereziak arautzen ditu) aurrez adierazitako Legean bilduriko aurreikuspenak garatzen ditu sailen estatistika-organo horien sorrerari, antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez.

180/1993 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak ezartzen duenez, Jaurlaritzaren Sailek Euskal Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Planetan propiotzat harturiko estatistika eta jardunak egin ahal ditzaten, Plan eta Programa horiek dagokien Estatistikarako Organo Berezia eduki beharko dute.

Estatistika-arloan sorturiko premiek, betiere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jardun-eremua

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 3383

DECRETO 129/2006, de 20 de junio, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y se establece su organización y funcionamiento.

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 26 que aquellos Departamentos del Gobierno que tuvieran constituido en su seno un órgano estadístico específico llevarán a cabo, en los términos previstos en dicha Ley, la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conformándose de esta manera en una parte integrante de la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma. A su vez, el artículo 27 del mismo texto legal remite la regulación de los órganos estadísticos específicos a su normativa propia.

El Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno, desarrolla las previsiones contempladas en la precitada Ley en cuanto a la creación, organización y funcionamiento de dichos órganos estadísticos departamentales.

La Disposición Adicional primera del Decreto 180/1993 establece, además, que para que los Departamentos del Gobierno puedan realizar las estadísticas y actuaciones incluidas como propias de ellos en el Plan Vasco de Estadística o en los Programas Estadísticos Anuales, será requisito indispensable que los mismos dispongan del correspondiente Órgano Estadístico Específico.

Las necesidades generadas en el orden estadístico, referidas a los sectores que constituyen el área de actua-

osatzen duten sektoreari gagozkiola, beren antolamendu-egituran organo integratu bat sortzea aholkatzen dute eta beharrezko egiten dute; estatistika-legeriak arautu, babestu eta mugatuko ditu organo horren harremanak eta funtzionamendua, batez ere estatistika-sektoreari dagokionez.

Horren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Euskal Estatistika Batzordea / Comisión Vasca de Estadística erakundearen aldez aurreko txostenarekin, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko ekainaren 20ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia sortzen da Dekretu honen bidez, eta haren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen da, 180/1993 Dekretuaren (ekainaren 22koa da eta Jaurlaritzaren Sailen Estatistikarako Organo Bereziak arautzen ditu) xedapenei jarraiki.

*2. artikulua.–* Mendekotasuna.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia pertsona bakarreko organoa da, zuzenean Zerbitzu zuzendariaren mende dagoena.

*3. artikulua.–* Eskumenak.

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia I. Klasekoa da bere eskumenei dagokienez. Horri jarraiki, 180/1993 Dekretuak klase horretako Estatistikarako Organo Bereziei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmenak izango eta baliatuko ditu, honako hauek zehazki:

a) Sailaren Estatistika Plana lantzea, Euskal Estatistika Planaren Proiekturako oinarri izango dena.

b) Lankidetza Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística erakundearekin Euskal Estatistika Plana eta Urteko Estatistika Planak lantzeko.

c) Urteko Estatistika Planetan bilduriko estatistikak edo haien faseak lantzea, programa horietan ezarritako baldintzei jarraiki.

d) Estatistika propioak lantzea —hots, Euskal Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programetan bildu gabeak—, 4/1986 Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

e) Beste erakundeekiko harremanak artikulu honetako c) eta d) idatz-zatietatik eratorritako estatistika-eginkizunen ondorioz, betiere 4/1986 Legearen 29.c) eta d) artikuluan ezarritakoa kontuan izanda.

ción del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, aconsejan y hacen necesaria la creación de un órgano integrado en su estructura organizativa, cuyas relaciones y funcionamiento esté regulado, protegido y limitado por la legislación estadística, especialmente en lo referido al secreto estadístico.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previo informe de la Euskal Estatistika Batzordea / Comisión Vasca de Estadística, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de junio de 2006,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Mediante el presente Decreto se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y se establece su organización y funcionamiento, de conformidad con las prescripciones del Decreto 180/1993, de 22 de junio, por la que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno.

*Artículo 2.–* Dependencia.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales es un órgano unipersonal que depende directamente del Director de Servicios.

*Artículo 3.–* Competencias.

1.– El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales se configura, a efectos de sus competencias, como de la Clase I. En su virtud ostentará las competencias y ejercerá las facultades que a los Órganos Estadísticos Específicos de dicha clase atribuye el Decreto 180/1993 y, en concreto, las siguientes:

a) Elaboración del Plan Estadístico Departamental que sirva de base al Proyecto del Plan Vasco de Estadística.

b) Colaboración con el Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística en la elaboración del Plan Vasco de Estadística y de los Programas Estadísticos Anuales.

c) Elaboración de aquellas estadísticas, o fases de ellas, incluidas en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos que en los mismos se determinen.

d) Elaboración de estadísticas propias, no incluidas en el Plan Vasco de Estadística ni en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos previstos en el artículo 8.1 de la Ley 4/1986.

e) Relación con otros organismos como consecuencia de las funciones estadísticas derivadas de los apartados c) y d) de este artículo, observando en todo caso lo establecido en el artículo 29.c) y d) de la Ley 4/1986.

f) Informazioa lortzea bere eskumeneko estatistikak egiteko, 4/1986 Legearen 9. artikulutik 16.era bitartekoetan adierazitako baldintzetan.

g) Artikulu honetako d) idatz-zatian aipaturiko estatistiken emaitzak argitaratu eta zabaltzea, baita Urteko Estatistika Programetan zehazten direnak ere, horien edukia aldez aurretik Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística erakundeari jakinarazita.

h) Bere sektore-eremuko estatistikako fitxategi-direktorioak lantzeko eta eguneratzeko parte hartzea, 4/1986 Legearen 29.i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

i) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak interesgarritzat jotzen dituen proiektuak egitea, batez ere sektoreko eta azpisektoreko zerbitzuak, azterlanak eta azterketak, 180/1993 Dekretuaren 7.2 artikuluak ezarritako esparruan.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak bere eskumenak baliatuko ditu sail horren estatistika-premiei dagokienez zein atxikita dituen erakundeei dagokienez —Euskal Estatistika Erakundea alde batera utzita—, estatistikak estatistika-datuen edo administrazio-datuen arabera landu behar badira ere.

3.– Estatistikek eraginpean harturiko gaiei buruz adierazitako Sailaren organo eta instantziei legez esleituriko eskumenak errespetatuko ditu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak. Organoak eskaturiko informazioa emango diote azken horiek Organoari berari, bere eskumenak balia ditzan.

*4. artikulua.*– Funtzionamendua.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak, behin 180/1993 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako Estatistikarako Organo Berezien Erregistroan erregistratu ondoren, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko bere jarduna estatistika-legeria gordez gauzatuko du, eta, batez ere, estatistika-sekretuari buruzko legeria gordez, beste organo edo erakundeekin izango dituen harremanetan, bere Sailari dagozkionekin edo atxikitakoekin izango dituenak barne.

*5. artikulua.*– Administrazio-errekurtsoak.

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua eskudun izango da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak emandako egintzen aurka jarriko diren errekurtsoak aztertu eta ebazteko.

2.– Errekurtso horien ebazpenak Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística erakundearen aginduzko txostena izango du aurretik.

f) Obtención de información para la realización de las estadísticas de su competencia, en los términos expresados en los artículos 9 a 16 de la Ley 4/1986.

g) Publicación y difusión de los resultados de las estadísticas referidas en el apartado d) de este artículo, así como de las que se determinen en los Programas Estadísticos Anuales, previa comunicación de su contenido al Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

h) Participar en la elaboración y actualización de los Ficheros-Directorios estadísticos de su ámbito sectorial, según lo previsto en el artículo 29.i) de la Ley 4/1986.

i) Realización de los proyectos que se consideren de interés por parte del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, especialmente servicios, estudios y análisis de tipo sectorial y subsectorial, en el marco establecido por el artículo 7.2 del Decreto 180/1993.

2.– El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales ejercerá sus competencias tanto respecto a las necesidades estadísticas de dicho Departamento como de los entes institucionales que, al margen del Instituto Vasco de Estadística, el mismo tenga adscritos, y con independencia de que las estadísticas hayan de elaborarse a partir de datos estadísticos o de datos administrativos.

3.– El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales respetará las competencias legalmente atribuidas a los órganos e instancias del citado Departamento sobre las materias afectadas por las estadísticas. Estos últimos le suministrarán la información que aquél requiera para el ejercicio de sus competencias.

*Artículo 4.*– Funcionamiento.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, una vez inscrito en el Registro de Órganos Estadísticos Específicos previsto en el artículo 4 del Decreto 180/1993, ejercerá su actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi actuando con observancia de la legislación estadística y, en particular, con la del secreto estadístico, en las relaciones que mantenga con otros órganos y Entes, incluidos los pertenecientes o adscritos a su Departamento.

*Artículo 5.*– Recursos administrativos.

1.– El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales será competente para conocer y resolver los recursos que se interpongan contra los actos dictados por el Órgano Estadístico específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– La resolución de estos recursos vendrá precedida de informe preceptivo del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ahalmena ematen zaio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari beharrezko xedapenak eman ditzan Dekretu honetan ezarritakoa garatu eta gauzatzeko.

***Bigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko ekainaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta al Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo establecido en el presente Decreto.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de junio de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

### 3384

2/2006 FORU ARAUA, martxoaren 22koa, Gipuzkoako zerga araudia 22/2005 eta 23/2005 Legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzen duen abenduaren 27ko 2/2005 Foru Dekretu Araua, Zerga Alorreko Presazkoa, balioztatzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Gipuzkoako zerga araudia 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzen duen abenduaren 27ko 2/2005 Foro Dekretu Araua, Zerga Alorreko Presazkoa, balioztatzen duena, martxoaren 22ko 212006 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, 2006ko martxoaren 22a.

Diputatu nagusia,
JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA.

## JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

### 3384

NORMA FORAL 2/2006, de 22 de marzo, de convalidación del Decreto Foral Norma de Urgencia Fiscal 2/2005, de 27 de diciembre, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a determinadas modificaciones introducidas en territorio común por las Leyes 22/2005 y 23/2005.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 2/2006 de 22 de marzo de convalidación del Decreto Foral-Norma de Urgencia Fiscal 2/2005, de 27 de diciembre, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a determinadas modificaciones introducidas en territorio común por las Leyes 22/2005 y 2312005» a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 22 de marzo de 2006.

El Diputado General,
JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA.